No habiendo más asuntos que tratar, la Presidenta da por finalizada la sesión, levantándose la presente acta de todo lo cual yo, como Secretaria de la Comisión doy fe.

ASTARLOA KULTURGINTZA
DURANGOKO UDALA

DURANGO Garena eginez Vivir y convivir

DURANGO Udala · Ayuntamiento

2023ko apirilaren17 · 17 de abril de 2023

**LEHENDAKARIA ·** Presidente
Ane Abanzabalegi Areitio (EH Bildu)

**BATZARKIDEAK ·** Asistentes
Mariam Bilbatua Perez (EH Bildu)
Juan Antonio Bueno Moreno (EH Bildu)
Francisco Javier López Lacunza (SQ-2D)
Neskutz Rodriguez Ormazabal (SQ-2D)
Mikel Ortega Marañón (EAJ/PNV)
Jon Sergio Atxotegi (EAJ/PNV)
Ainhoa Ortueta Etxebarria (EAJ/PNV)
Jesica Ruiz Pérez (ES-SV)

**BERTARATU EZ DIRENAK ·** Justifica ausencia
Ima Garrastatxu Urbaneja

**KUDEATZAILEA ·** Gerente
Asier Bikandi

**PRESIDENTEAK BERAK GONBIDATUTA · INVITADO/A A INSTANCIAS DEL PRESIDENTE**
Garazi Arrizabalaga, Museoko arduraduna / Responsable Museo
Estibaliz Albizu Goikoetxea Bibliotekako arduraduna/ Responsable de la Biblioteka
Arantza Arrazola. San Agustineko arduraduna/ Responsable de San Agustin
Maider Larrañaga. Plateruenako arduraduna/Responsable de Plateruena

**IDAZKARIA** · Secretaria de la Comisión Teresa Oleaga

**ORDEZKARI MODUAN DIHARDUENA**·:Eneritz Azpitarte Aranzabal

| | |
|---|---|
| Tokia · Lugar: | Oso Bilkura Aretoa |
| Izaera · Naturaleza: | Ohikoa · Ordinaria |
| Hasiera ordua · Hora de inicio: | 16:00 |
| Amaiera ordua · Hora Final: | 16:50 |

BAT.- AURREKO AKTAREN ZIRRIBORROA IRAKURTZEA ETA, BIDEZKOA BALITZ, ONARTZEA

Irakurri ondoren, aho batez onartu zen martxoaren 14ko akta.

UNO.- LECTURA Y APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL BORRADOR DE ACTA DE LA SESION ANTERIOR

Una vez leída fue aprobada por unanimidad el acta del 14 de marzo.

Ane Abanzabalegi andreak gai ordenean aldaketa bat ematea proposatzen du, hurrengoko puntua Plateruenako Kultur Aterpeko araudia onartzea izatea.

Dña. Ane Abanzabalegi propone una modificación en el orden del día, aprobar en el siguiente punto la normativa del Plateruena Kultur Aterpea.

BOST.- BIDEZKOA BALITZ, PLATERUENA KULTUR ATERPEKO ARAUDIA ONARTZEA.

CINCO.- APROBACION SI PROCEDE DE LA NORMATIVA DE PLATERUENA KULTUR ATERPEA.

Plateruenako arduradunak azken hilabetetan egindako lana azaltzen du.

La responsable de Plateruena explica el trabajo realizado en los últimos meses.

Kultur mahaiak landu du Kultur Aterpeko araudia, gaur aurkezten dena ez da Plateruena osoko funtzionamenduaren araudia. Gaur nahi dena da Astarloako juntak araudi hau berreztea.

La mesa cultural ha elaborado la normativa de Kultur Aterpea, lo que se presenta hoy no es la normativa de funcionamiento de toda Plateruena. Lo que se pretende hoy es que la junta de Astarloa ratifique este reglamento.

Kultur mahaiak lanean jarraitzen du, azpibatzorde hauek sortu dira.

- Tabernako esleipena
- Prezio publikoak
- Programazioa
- Esperimentazioa eta harrobia
- Euskalgintza
- Komunikazioa

La mesa de cultura sigue trabajando, se han creado estas subcomisiones.

-Adjudicación del bar
-Precios públicos
-Programación
-Experimentación y cantera
-Euskalgintza
-Comunicación

Uda baino lehenago, Plateruenako araudi osoa, prezio publikoak, tabernako esleipena eta lan teknikoen esleipenak egitea da helburua.

Antes del verano se tratara de realizar toda la normativa de Plateruena, los precios públicos, la adjudicación del bar y la adjudicacion de los trabajos técnicos.

Plateruenako arduradunak Plateruenako hurrengoko hileetako programazioa aurkezten du.

La responsable de Plateruena presenta la programación de los próximos meses de Plateruena.

Jesica Ruiz andreak esaten du gaur aurkeztutakoa ez dela araudi bat, hau mahai desberdinen funtzionamenduaren azalpena dela.

Dña. Jesica Ruiz dice que lo presentado hoy no es un reglamento, que ésta es la explicación del funcionamiento de las diferentes mesas.

Plateruenako arduradunak esaten du oraindik osotu behar dela.

La responsable de Plateruena dice que todavía hay que completarlo.

Ane Abanzabalegi andreak dio Kultur mahaiak eskatu duela Astarloa kulturgintzaren batzordearen babesa edukitzea.

Dña. Ane Abanzabalegi manifiesta que la Mesa Cultural ha solicitado el apoyo de la Comisión de Astarloa kulturgintza.

Jesica Ruiz andreak esaten du ez dakitela zertarako bozkatu behar duten.

Dña. Jesica Ruiz dice que no saben para qué tienen que votar.

Ane Abanzabalegi andreak esaten du geroago bozkatuko dela araudi osoa.

Dña. Ane Abanzabalegi dice que más tarde se votará toda la normativa.

Jesica Ruiz andreak dio gaur kontratazio bat ikusi duela kultur mahai sortzearen.

Dña. Jesica Ruiz comenta que hoy ha visto una contratación de la creación de la mesa cultural.

Platereneko arduradunak dio, hau Platereneko prozesua dinamizatzeko kontratatu dela eta kultura sailak ordainduko duela.

La responsable de Plateruena dice que esto se ha contratado para dinamizar el proceso de Plateruena y que el departamento de cultura lo va a pagar.

Asier Bikandi jaunak dio martxoaren 27a baino lehenagoko fakturak kultura sailak ordainduko dituela.

D. Asier Bikandi dice que las facturas anteriores al 27 de marzo las pagará el departamento de cultura.

Ainhoa Ortueta andreak ea faktura horien xehetasunak eduki ahal dituzten.

Dña. Ainhoa Ortueta, a ver si pueden tener el detalle de esas facturas.

Asier Bikandi jaunak dio kultura sailak edukiko dituela.

D. Asier Bikandi dice que los tendrá el departamento de cultura.

Ainhoa Ortueta andreak esaten du, Noemak eta Sua kontratazioetan ez dela zehazten Platerenak ordainduko duen.

Dña. Ainhoa Ortueta dice que en las contrataciones de Neomak y Sua no aparece si lo va a pagar Plateruena.

Administrariak azaltzen du, espedientea Astarloak egin duenez Astarloak ordainduko duela, gainera hasierako espedientean partidan agertzen da 3342 eta hori Platerenaren zenbakia dela.

La administrativa expone que, dado que el expediente ha sido realizado por Astarloa, lo pagará Astarloa, además en el expediente inicial aparece en la partida 3342, que es el número de Plateruena.

Ainhoa Ortueta andreak galdetzen du ea gaur emandako datuak kudeaketa txostenean sartuko diren.

Dña. Ainhoa Ortueta pregunta si los datos aportados hoy se incluirán en el informe de gestión.

Ane Abanzabalegi andreak dio baietz.

Dña. Ane Abanzabalegi afirma que sí.

Jesica Ruiz andreak galdetzen du maiatzetik aurrera ze programazio egongo den.

Jesica Ruiz pregunta qué programación habrá a partir de mayo.

Platereneko arduradunak programazioa azaltzen du.

La responsable de Plateruena explica la programación.

Gaia aztertu ondoren bozketa egiten da eta onartu egiten da Platerena Kultur Aterpeko araudia.

Aldeko botoak: Bildu (3); SQ-2D (2);
Abstentzioak: EAJ-PNV (3); PSE-EE (1)

BI.-PRESIDENTEAREN ZENBAIT EBAZPENEI BURUZKO KONTU EMATEA
Batzordeko presidenteak honako ebazpen hauen berri eman du:

- “BIZARRAK 2.0” ikuskizunaren kontratazioa onartzeko ebazpena, 2023ko otsailaren 23koa.
- “HEGOAK” ikuskizunaren kontratazioa onartzeko ebazpena, 2023ko martxoaren 6koa.
- “MUCHOS AMIGOS NEGROS” ikuskizunaren kontratazioa onartzeko ebazpena, 2023ko martxoaren 6koa.
- 02/2023 faktura erlazioa onartzeko ebazpena 2023ko martxoaren 8koa.
- “MUERTE DE RISA” ikuskizunaren kontratazioa onartzeko ebazpena, 2023ko martxoaren 8koa.
- 02/23 faktura konpentsazioa onartzeko ebazpena, 2023ko martxoaren 9koa.
- BIZARRAK 2.0 kontratazioaren zuzenketa onartzeko ebazpena 2023ko, martxoaren 9koa.
- Otsaileko ordainketak onartzeko ebazpena 2023ko martxoaren 10ekoa.

Una vez tratado el asunto se somete a votación y se aprueba la normativa de Plateruena Kultur Aterpea.

Votos a favor: Bildu (3); SQ-2D (2);
Abstenciones: EAJ-PNV (3); PSE-EE (1)

DOS.- DACIÓN DE CUENTAS DE VARIAS RESOLUCIONES DE LA PRESIDENTA
El Presidente da cuenta de las siguientes resoluciones:

- Resolución de aprobación de la contratación de “BIZARRAK 2.0” con fecha de 23/02/2023.
- Resolución de aprobación de la contratación de “HEGOAK” con fecha de 06/03/2023.
- Resolución de aprobación de la contratación de “MUCHOS AMIGOS NEGRO” con fecha de 06/03/2023.
- Resolución de aprobación la relación de facturas 02/2023 con fecha de 08/03/2023.
- Resolución de aprobación de la contratación de “MUERTE DE RISA” con fecha de 06/03/2023.
- Resolución de la aprobar el expediente de 02/2023 compensación de factura con fecha de 09/03/2023.
- Resolución de para aprobarla corrección de la contratación de BIZARRAK 2.0 con fecha de 09/03/2023.
- Resolución de aprobación de los pagos de febrero con fecha de 10/03/2023.

- "MUNDUARI ITZULIA 80 EGUNETAN" ikuskizunaren kontratazioa onartzeko ebazpena, 2023ko martxoaren 10ekoa.
- Resolución de aprobación de la contratación de "MUNDUARI ITZULIA 80 EGUNETAN" con fecha de 10/03/2023.
- "ARTXIBOKO SISTEMA SORTZEKO" kontratazioa onartzeko ebazpena, 2023ko martxoaren 15ekoa.
- Resolución de aprobación de la contratación de "CREACION DEL SISTEMA DEL ARCHIBO" con fecha de 10/03/2023.
- "HONDAMENDIA" ikuskizunaren kontratazioa onartzeko ebazpena, 2023ko martxoaren 22koa.
- Resolución de aprobación de la contratación de "HONDAMENDIA" con fecha de 22/03/2023.
- "EL NADADOR DE AGUAS ABIERTAS" ikuskizunaren kontratazioa onartzeko ebazpena, 2023ko martxoaren 22koa.
- Resolución de aprobación de la contratación de "EL NADADOR DE AGUAS ABIERTAS" con fecha de 22/03/2023.
- "SEÑORA DE ROJO SOBRE FONDO GRIS" ikuskizunaren kontratazioa onartzeko ebazpena, 2023ko martxoaren 22koa.
- Resolución de aprobación de la contratación de "SEÑORA DE ROJO SOBRE FONDO GRIS" con fecha de 22/03/2023.
- 01/2023 kreditu gehigarriaren hasiera espedientea onartzeko ebazpena, 2023ko martxoaren 22koa.
- Resolución para aprobación el inicio de expediente de la modificación de crédito 01/2023 con fecha de 22/03/2023.
- Martxoko nomina onartzeko ebazpena 2023ko martxoaren 24koa.
- Resolución de la aprobación de la nómina del mes de marzo con fecha 24/03/2023.
- "BENITO LERTXUNDI" kontzertuaren kontratazioa onartzeko ebazpena, 2023ko martxoaren 22koa.
- Resolución de aprobación de la contratación del concierto "BENITO LERTXUNDI"" con fecha de 22/03/2023.
- 01/2023 kreditu gehigarria onartzeko ebazpena, 2023ko martxoaren 27koa.
- Resolución para aprobación de la modificación de crédito 01/2023, con fecha de 27/03/2023.
- 02/2023 kreditu gehigarriaren hasiera espedientea onartzeko ebazpena, 2023ko martxoaren 28koa.
- Resolución para aprobación el inicio de expediente de la modificación de crédito 02/2023 con fecha de 28/03/2023
- 03/2023 faktura erlazioa onartzeko ebazpena 2023ko martxoaren 29koa.
- Resolución para aprobación la relación de facturas 03/2023 con fecha de 29/03/2023.

- “NEOMA+SUA” kontzertuaren kontratazioa onartzeko ebazpena, 2023ko martxoaren 29koa.

- Resolución de aprobación de la contratación del concierto “ NEOMAK+SUA” con fecha de 2903/2023

Jesica Ruiz andreak galdetzen du, 01/2023 kreditu modifikazioa 9.000,00koa zertarako den.

Dña. Jesica Ruiz pregunta para que se usara la modificación de crédito 01/2023 por 9.000,00.

San Agustin Kulturguneko arduradunak dio argien mahai berri bat erosteko dela, zaharrak 25 urte zituela eta apurtu egin dela.

La responsable del San Agustín Kulturgunea comenta que es para comprar una nueva mesa de luces, que el viejo tenía 25 años y que se ha roto.

HIRU .- KUDEAKETA TXOSTENA

TRES.-INFORME DE GESTION

BIBLIOTEKA:

- Martxoaren 22an, asteazkena, “Hitzez eta ahotsez” egitasmoaren programazio barruan, Bea Egizabalen “Baubo” ahozko narrazioa saioa izan dugu. 60 pertsona hurbildu dira.

- El 22 de marzo, dentro de la programación de “Hitzez eta ahotsez”, se realizó la sesión de narración oral “Baubo” a cargo de Bea Egizabal. Ha habido 60 personas en la sesión.

- Martxoren 23an, Plateruenan, Durangoko VII. Booktrailer lehiaketaren testuinguruan, Durangoko Irratiarekin elkarlanean, egitasmoan parte hartu duten ikastetxeetako ikasleek irrati tailerrak egin dituzte. Landako, Zabalarra eta Jesuitak ikastetxeetako ikasleek Zehar Errefuxiatuekin elkarteko Alessandro Brentana eta Victor Cassamancetik etorritako durangarra elkarrizketatu dute eta institutuko ikasleek “Emakume guztiok” komikiaren egilea den Higinia Garay.

- El 23 de marzo, dentro de la VII. Concurso de BookTrailers de Durango, y en colaboración con Durango Irratia, se han realizado talleres de radio con el alumnado de los centros educativos que han participado en la iniciativa. El alumnado de Zabalarra, Landako y Jesuitak, han entrevistado a Alessandro Brentana, de Zehar Errefuxiatuekin, y a Victor Diatta, durangués procedente de Cassamance y los del instituto a Higinia Garay, una de las autoras de “Todas nosotras”.

- Egitasmo beraren barruan, martxoaren 24an, Araceli Oñate, eskola jasarpenean aditua, San

- Dentro del mismo contexto, el 24 de marzo, Araceli Oñate, experta en acoso escolar, se reunió con

Antonio eta Jesuitak ikastetxeetako irakasle eta ikasleekin elkartu eta gai honen inguruko hitzaldia eskaini zuen.

- Martxoaren 24an, BookTrailer lehiaketan parte hartzeko bideoak aurkezteko azken eguna izan da. 106 bideo jaso ditugu.

- Martxoaren 13tik 24ra, bibliotekako zerbitzuari buruzko asetasun inkesta egin dugu.173 inkesta bete dira, eta bibliotekak eskaintzen duen zerbitzuaren balorazio orokorrak 8.84 nota jaso du (2021. Urtean 8.68koa izan zen, 103 inkesta bete ziren). Datu guztiak aztertu eta hurrengo batzordean aurkeztuko ditugu.

- Apirilaren 21an, Plateruena Kultur Aterpean, Institutuko eta Jesuitak ikastetxeetako Batxilergoko lehenengo mailako ikasleekin work kafe literario bat egingo dugu. Ikasle hauek, urritik martxora bitartean, "Un gran viaje por la literatura" literatura tailerrean parte hartu dute.

profesores y alumnos de los centros escolares de San Antonio y Jesuitas y ofreció una charla sobre este tema.

- El 24 de marzo acabó el plazo de entrega de los videos para el concurso de BookTrailer. Hemos recibido 106 trabajos.

- Del 13 al 24 de marzo se ha realizado la encuesta de satisfacción del servicio de la biblioteca. Se han cumplimentado 173 encuestas y la valoración global del servicio que ofrece la biblioteca ha recibido 8.84 de nota (el año 2021 fue de 8.68, y se rellenaron 103 encuestas). Presentaremos todos los datos analizados en la próxima junta.

- El 21 de abril, en Plateruena Kultur Aterpea, realizaremos un work café literario con alumnado de primero de Bachillerato del Instituto y de Jesuitas. Estos alumnos han participado, de octubre a marzo, en el taller literario "Un gran viaje por la literatura".

MUSEOA:

- Martxoan hiru hitzaldi izan genituen. Bata, martxoaren 5ean hirugarrengoek antolatua, bestea 9an Cristina Gutierrez Meursen erakusketaren harira egindakoa. Azken honetan 43 pertsona gerturatu ziren. Martxoaren 28an aldiz, Mikeldiari buruzko hitzaldia eskaini zuten Luis Valdések eta Isabel Arenalek "El luminoso ídolo oscuro" izeneko liburuaren ikerketa azaldu zuten.

- "Egiteke duguna" erakusketaren bisita gidatuak egin ditugu. Guztiak beterik egon dira eta pasatutako

- En marzo tuvimos tres conferencias. Una, organizada por terceros el 5 de marzo, y otra, el 9, con motivo de la exposición de Cristina Gutierrez Meurs. A ésta última se acercaron 43 personas. El 28 de marzo, Luis Valdés e Isabel Arenal ofrecieron una conferencia sobre el Mikeldi donde expusieron el estudio realizado para el libro "El luminoso ídolo oscuro".

- Hemos realizado visitas guiadas a la exposición "Cuentas pendientes". Se han llenado todos los grupos y según las encuestas que hemos pasado,

inkesten arabera, oso emaitza positiboekin.

con resultados muy positivos.

- Martxoaren 23ªn "Jose Manuel Rozas. Berpizkundea" erakusketa inauguratu genuen. 88 pertsona hurbildu ziren irekierara.
- El 23 de marzo inauguramos la exposición "Jose Manuel Rozas.Renacimeinto". 88 personas se acercaron a la apertura.
- Museoak antolatutako ekintzetaz gain, hainbat zentroetatik (Berbalagun, Fari Juan Zumarraga institutua, Maiztegi ikastetxea) jarri dira gurekin harremanetan bisita gidatuak eta tailerrak egiteko.
- Además de las actividades organizadas por el museo, se han puesto en contacto con nosotros desde diferentes centros (Berbalagun, instituto Fari Juan Zumarraga, colegio Maiztegi) para realizar visitas guiadas y talleres.
- Jose Manuel Rozasen erakusketaren harira bisita gidatuekin hasiko gara apirilaren 13an hasita eta maiatzera bitartean.
- Comenzamos con las visitas guiadas con motivo de la exposición de Jose Manuel Rozas desde el 13 de abril hasta mayo.
- Apirilaren 20an, dokumental baten emanaldia izango dugu: Norberaren gela. Eulalia Abaitua argazkilariaren biografia.
- El 20 de abril tendremos la proyección de un documental: El aula propia. Biografía de la fotógrafa Eulalia Abaitua.
- Apirilaren 21en Hitzez eta Ahotsezek antolatua, Ane Labakak hitzaldia eskainiko du museoan.
- Organizado por Hitzez eta Ahotez el 21 de abril, Ane Labaka ofrecerá una charla en el museo.

SAKG

- Programazioaren balorazio oso positiboa egiten dugu. 25. urteurreneko ikuskizunak oso harrera ona izaten jarraitzen du.
- Valoramos muy positivamente la programación. El espectáculo del 25 aniversario sigue teniendo muy buena acogida.
- Badirudi familientzako ikuskizunen publikoa berreskuratzen ari dela, nahiz eta lotsati bada ere.
- Parece que se está recuperando aunque tímidamente el público de espectáculos para familias.
- Bitxia da ikuslerik gutxien izan duen ikuskizunean ikusleek hobekien baloratu duten ikuskizuna izan dela. Hona hemen iruzkinak: Aspaldi ikusi dugun ikuskizunik onena.
- Es curioso que en el espectáculo que menos público ha tenido hay sido el mejor valorado por el público "Hegoak" con comentarios como: "El mejor espectáculo que hemos visto hace tiempo"

- Euskadiko Kooperatiben Batzarra, Denak-bai Elkartearen batzarra eta bizilagunen komunitatearen bilerak.

- Hotzikara Dantza, zirkin eskola edo LÀtlier eskola bezalako tokiko taldeen entsegua.

- Datozen hilabeteetako programazioari arreta jartzen jarraituko da, ikuskizun batzuetan ekoizpen- eta erakartze-ahalegina egin beharko baita.

- Eta Uda Giro 2023 prestatzen ari gara.

- Asamblea de la Asamblea de Cooperativas de Euskadi, de la Asociación Denak-bai y reuniones de comunidad de vecinos.

- Ensayo de grupo locales como Hotzikara Dantza, zirkin eskola edo LÀtlier eskola.

- Se seguirá atendiendo la programación de los próximos meses ya que algunos espectáculos van a requerir esfuerzo de producción y otros de captación de públicos.

- Y se está preparando el Uda Giro 2023.

LAU._ BIDEZKOA BALITZ 02-2023 KREDITU MODIFIKAZIOA ONARTZTEA

- Ane Abanzabalegi andreak adierazten du, 3 aldaketa daudela. Lehengoa 120.000,00 €koa SAKGko 25. urteurrenerako. Bigarrena 9.000,00 €koa Museoan kamerak berritzeko eta hirugarrena 17.557,10 €koa liburutegian dagoen artxiboa digitalizatzeko.

Gaia aztertu ondoren bozketa egiten da eta aho batez onartzen da bertaratutako kideen artean.

Aldeko botoak: Bildu (3); SQ-2D (2);EAJ-PNV (3); PSE-EE (1)

CUATRO._ APROBACION SI PROCEDE DE LA MODIFICACION DE CREDITO 02-2023

- Dña. Ane Abanzabalegi manifiesta Que hay 3 cambios. Primero 120.000,00 € para el 25 aniversario de la SAKG. El segundo de 9.000,00 € para la renovación de cámaras en el Museo y el tercero de 17.557,10 € para la digitalización del archivo existente en la biblioteca.

Una vez tratado el asunto se somete a votación y se aprueba por unanimidad de los miembros presentes.

Votos a favor: Bildu (3); SQ-2D (2); EAJ-PNV (3); PSE-EE (1)

BOST._ GALDERAK ETA ESKAERAK.

- Jesica Ruiz andreak organigrama bidaltzea eskatzen du eta galdetzen du ea LESA ia sartuta dagoen.

- Asier Bikandi jaunak esaten du, LESA oraindik ez dago sartuta eta horregatik itxaron egin behar dela eta konplexuena LESA dela.

CINCO._ RUEGOS Y PREGUNTAS.

- Dña. Jesica Ruiz solicita el envío del organigrama y pregunta si el LESA está prácticamente integrado.

- D. Asier Bikandi dice que LESA aún no está incluido y por eso hay que esperar, la mayor dificultad es LESA.

- Jesica Ruiz andreak galdetzen du ea maiatzean batzordea egongo den.

- Ane Abanzabalegi andreak dio ez dakiela egin ahal diren, galdetuko duela juridikoki egin ahal diren.

- Dña. Jesica Ruiz pregunta si en mayo habrá comisión.

- Dña. Ane Abanzabalegi dice que no sabe si se pueden hacer, que preguntará si se pueden hacer jurídicamente.

Eta aztertzeko gai gehiago ez dagoela ikusirik, presidenteak amaiera ematen dio batzarrari eta, nik, udaleko idazkaria naizen honek, akta jaso eta egiaztatu egiten dut.

No habiendo más asuntos que tratar, la Presidenta da por finalizada la sesión, levantándose la presente acta de todo lo cual yo, como Secretaria de la Comisión doy fe.

ASTARLOA KULTURGINTZA
DURANGOKO UDALA

durango

DURANGO
Udala · Ayuntamiento

2023ko irailaren 12a · 12 de septiembre de 2023

**LEHENDAKARIA / ALKATEA** · Presidente / Alcaldesa
Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia (EAJ/PNV)

**BATZARKIDEAK** · Asistentes
Jon Sergio Atxotegi (EAJ/PNV)
Asier Perugorria Garcia (EAJ/PNV)
Arantza Barrenetxea Arruti (EAJ/PNV)
Jesica Ruiz Perez (DES-SVD)
Carlos David Garcia Fernandez (PP)
Nagore Lozano Zarandona (EHBildu-Durango)
Martin Loizate Sarrionandia (EHBildu-Durango
Juan Antonio Bueno Moreno (EHBildu-Durango)
Jorge Varela Dorrio (HE-ID)

**BERTARATU EZ DIRENAK** · Justifica ausencia

**KUDEATZAILEA** · Gerente
Asier Bikandi

**PRESIDENTEAK BERAK GONBIDATUTA · INVITADO/A A INSTANCIAS DEL PRESIDENTE**

**IDAZKARIA** · Joana Rezola

| | |
|---|---|
| Tokia · Lugar: | Osoko Bilkura Aretoa |
| Izaera · Naturaleza: | Ezohikoa·Extraordinaria |
| Hasiera ordua · Hora de inicio: | 17:00 |
| Amaiera ordua · Hora Final: | 17:40 |

**BAT.- DEIALDI HONEN PREMIAREN BERRESPENA**

Asier Bikandi Elorriaga jaunak proposatzen du gai ordenaren puntu hau baliogabe uztea, dagoeneko ez dagoelako premia berezirik deialdia azkar egiteko.

Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia andereak dio ados dagoela, denboraz ondo gabiltzalako.

**BI.- ADMINISTRAZIO ERAKUNDE AUTONOMOKO BENETAKO LEHENDAKARIA IZANGO DEN KIDEAREN ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN PROPOSAMENA ETA IZENDAPENA**

Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia Alkate andereak hitza hartu eta Kontseilu honetako Presidente gisa Jon Sergio jauna (EAJ/PNV) proposatzen du.

Proposamena bozkatzen da eta onartu egiten da aho batez.

Jon Sergio Atxotegi jauna (EAJ/PNV) izendatzen da Kontseiluaren Presidente gisa.

**HIRU.-OHIKO BILKUREN ALDIZKOTASUNA ZEHAZTEKO KONTSEILU ERREKTOREAREN AKORDIOA**

Jon Sergio Atxotegi jaunak batzarreko kideei proposatzen die, ondo iruditu ezkero, ohiko bilkurak hilean behin, hilabeteko bigarren asteartean arratsaldeko bostetan egitea.

**UNO.- RATIFICACION DE LA URGENCIA DE LA PRESENTE CONVOCATORIA**

Don Asier Bikandi Elorriaga propone dejar sin validez este punto del orden del d a, porque ya no considera que haya urgencia para la convocatoria.

Dona Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia dice que esta de acuerdo porque estamos bien de tiempo.

**DOS.- PROPUESTA DEL CONSEJO RECTOR DEL O LA MIEMBRO QUE OSTENTE LA PRESIDENCIA EFECTIVA DEL ORGANISMO AUTONOMO ADMINISTRATIVO Y SU NOMBRAMIENTO**

La Alcaldesa Dona Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia propone a este Consejo el nombramiento como Presidente efectivo del mismo a Don Jon Sergio (EAJ/PNV).

Se vota la propuesta y se aprueba por unanimidad.

Se nombra a Don Jon Sergio Atxotegi (EAJ/PNV) Presidente del referido Consejo.

**TRES.- ACUERDO DEL CONSEJO RECTOR EN EL QUE SE DETERMINA LA PERIODICIDAD DE LAS SESIONES ORDINARIAS**

Don Jon Sergio Atxotegi propone a los miembros de la reunion, en caso de que esten de acuerdo, realizar las juntas ordinarias una vez al mes, el segundo martes del mes a las cinco de la tarde.

Dona Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia propone realizar las juntas en la sala de

Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia andereak proposatzen du batzarrak bideo-gelan egitea, osoko bilkura gelan egin beharrean, izan ere, erosoagoa da eta txikiagoa denez batzarretan kideen arteko gertutasuna sustatzen da. Gainera, batzarra grabatzeko ere, erraztasunak ematen ditu gela horrek.

Hirugarren puntu honetan egindako proposamena bozkatu egiten da honako emaitzarekin:

- Alde: BEDERATZI, Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco (4), Durangoko Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos de Durango (1), Partido Popular (1) eta EHBildu-Durango (3).
- Abstentzioa: Herriaren Eskubidea (1).

videos, en vez de hacerlo en la sala de plenos, ya que es mas comoda y al ser mas pequena promueve el acercamiento entre los miembros. Ademas, esa sala nos da mas facilidades para grabar la reunion.

Se vota la propuesta realizada en este tercer punto con el siguiente resultado:

- A favor: NUEVE, de Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco (4), Durangoko Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos de Durango (1), Partido Popular (1) y EHBildu-Durango (3).
- Abstencion: Herriaren Eskubidea (1).

**LAU.-ADMINSITRAZIO ERAKUNDE AUTONOMOAREN AURKEZPEN OROKORRA**

Jon Sergio Atxotegi jaunak dio, aurreko legeadian ere egin zela, eta egoki ikusten duela Astarloa Kulturgintza osatzen duten egoitza guztietara bisita bat egitea, bertako teknikaria ezagutzeko, eta haiek zerbait azaldu nahi dituzten gauzak azaltzeko eta egoitza erakusteko. Bisita egiteko guztion artean egun apropos bat erabaki beharko zen.

Batzarreko kide guztiek adostasuna adierazten dute proposamen honen aurrean.

Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia andereak dio, orduan aurkezpena bisita gisatu horrekin batera egingo dela.

**CUATRO.- PRESENTACION GENERAL DEL ORGANISMO AUTONOMO ADMINISTRATIVO**

Don Jon Sergio Atxotegi dice, que al igual que se hizo en la anterior legislatura, ve apropiado realizar una visita a todos los establecimientos que conforman Astarloa Kulturgintza, para conocer a las tecnicas, y nos puedan explicar las cosas que les resulten relevantes o nos ensenen el establecimiento.

Todos los miembros de la comision muestran su conformidad con la propuesta.

Dona Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia dice que entonces, la presentacion del Organismo Autonomo se realizara a traves de dicha visita.

Juan Antonio Bueno Moreno jaunak eskatzen du bisita goizean ez egitea, baizik arratsaldez.

Don Juan Antonio Bueno Moreno solicita que la visita no se realice por la manana, sino por la tarde.

Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia andereak dio ziurrenik kide guztiek arratsaldez nahiago dutela, beraz, arratsaldez egitea dela egokiena.

Dona Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia dice que lo mas adecuado es hacer por la tarde, puesto que a la mayor a de los miembros les viene mejor este horario.

Jon Sergio Atxotegi jaunak dio, agian Whatssap talde bat egitea komeni dela Astarloa Kulturgintzako taldeko kideekin, edozein mezu modu zuzen eta azkar batean bidali nahi ezkero, baliabide horrekin kontatzea interesgarria izango zelako baliabide horrekin kontatzea.

Don Jon Sergio Atxotegi dice que conviene hacer un grupo de Whatssap con los miembros de la comision de Astarloa Kulturgintza, porque en caso de necesitar hacer llegar cualquier mensaje a todos los miembros de una forma rapida y directa, ser a interesante contar con este formato.

**BOST.- ESKAERAK ETA GALDERAK**

**CINCO.-RUEGOS Y PREGUNTAS**

Nagore Lozano Zarandona andereak dio gustatuko litzaiekela jakitea gobernu taldeak Plateruenaren inguruan zein aurreikuspen egiten duen edo zein helburu duen. Kultur mahaian batzar bat egin zuten eta batzar horren informazioa jaso nahi dute.

Dona Nagore Lozano Zarandona dice que les gustar a saber que prevision tiene el grupo de gobierno sobre Plateruena, o que intencion tiene con ese espacio. En la mesa cultural se hizo una reunion y quieren recibir informacion sobre esa reunion.

Jon Sergio Atxotegi jaunak dio beraien helburua momentu honetan proiektu horren egoera aztertzea dela, eta denbora behar dutela horretarako.

Don Jon Sergio Atxotegi dice que su intencion en este momento es examinar la situacion de ese proyecto, y que necesitan tiempo para ello.

Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia andereak dio momentu egokia dela kultur mahaian azaldutakoa kontatzeko. Lehenengo eta behin lasaitasun mezu bat bidali nahi dut. Hau da, gobernu taldeak Plateruenarekin argi du Kulturaren aldeko apustua egiten duela, kontua da, gobernuan sartu zirenetik tokatu zaiela egoera zein den aztertzea, ez bakarrik kultura arloan, baizik eta arlo guztietan. Normala den moduan, gauza batzuk ondo aurkitu dituzte, eta

Dona Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia dice que es un momento apropiado para explicar lo mismo que se explico en la mesa cultural. Lo primero de todo es trasladar un mensaje de tranquilidad. El grupo de gobierno tiene claro que con el Plateruena quiere hacer una apuesta a favor de la cultura. La cuestion es que, desde que han entrado a gobernar, les ha tocado tener que examinar cual es la situacion actual, no solo en el ambito

beste batzuk, ez hain ondo, eta ez hain ondo aurkitutako arlo horiek lasaitasunez hartu nahi dituzte egin beharreko hobekuntzak egiteko. Puntu honetan, Plateruenarekin jarraitu den ibilbidea gogoraraztea komenigarria ikusten du. Horregatik, azaltzen du 2021ean bi prozesu egin zirela, bata Plateruenaren diagnostikoa egiteko, eta bestea "Plateruena eta gero zer?", eragile eta herritar talde batek egindakoa. Proiektu bi hauen ondorioak oso parekoak izan ziren: Plateruena kultura eta sorkuntzarako espazio bat izatea, kulturarekiko perspektiba bateratua izateko beharra, kudeaketa eredua publiko-komunitarioa izatea, bideragarria izateko finantzaketa iturriak bilatu beharra, eta kultura sortzeko gunea izan beharko dela Plateruena eta ez taberna, hau da, ostalaritza osagarria izan beharko litzatekela. Gertatzen dena da, nahiz eta ondorioak oso argiak izan bi prozesuetan, udaletik emandako pausoak ez datozela guztiz bat horrekin. Adibidez, Plateruenak une honetan duen lizentzia kafe-antzokiarena da, eta gainera baldintzatutako dago hobekuntza batzuk egitera, klimatizazioan konponketa batzuk egin behar baitira, eta hori guztiz beharrezkoa da behin betiko lizentzia jasotzeko. Kontua da, lizentzia horren jarduera nagusia ostalaritza dela, eta hauek ez dator bat lehen aipatutako proiektuen ondorioekin. Beste alde batetik, finantzaketaren gaia dago, izan ere, bi prozesuetan argi esaten da finantzaketa iturriak bilatu behar direla, baina hau ez da landu. Horrez gain, pertsonalaren inguruan, giza baliabideen beharrak ere ez ziren aurreikusi, eta udal kudeaketa zuzena izan behar bada, pertsonalaren beharra dagoela argi dago. Guzti honekin ikusten da, proiektua martxan jarri dela, baina eman beharreko pauso garrantzitsu batzuk

cultura, sino en todos los ambitos. Como es normal, algunas cosas las han encontrado bien, y otras, no tanto. Esas cuestiones que no han encontrado en buena situacion deben tomarselas con calma para poder realizar las mejoras necesarias. En este punto, ve recomendable recordar el camino que se a seguido con el Plateruena. Explica que en el 2021 se llevaron a cabo dos procesos, uno para realizar un diagnostico del Plateruena, y el otro "Plateruena eta gero zer?", realizado por ciudadanos. Las conclusiones de ambos proyectos fueron similares: que Plateruena sea un espacio para la cultura y la creacion, la necesidad de tener una perspectiva unificada de la cultura, la necesidad de buscar fuentes de financiacion para su viabilidad, y que Plateruena debe ser una espacio para la creacion de cultura, y no un bar. Es decir, que la hosteler a deber a ser algo accesorio. Lo que ocurre es que, aunque las conclusiones sean muy claras en los dos proyectos, los pasos dados desde el ayuntamiento no son acordes a esas conclusiones. Por ejemplo, la licencia que tiene ahora mismo el Plateruena es la de "cafe-teatro", y ademas esta condicionada a realizar unas mejoras, porque se tienes que realizar reparaciones en la climatizacion, y esto ultimo resulta necesario para conseguir la licencia definitiva. La cuestion es, que la actividad principal de la licencia de "cafe-teatro" es la hosteler a, y esto no es concordante con las conclusiones de los proyectos antes mencionados. Por otra parte, esta el tema de la financiacion, sobre el cual se dice en los dos proyectos que hay que buscar fuentes de financiacion, pero este tema no se ha trabajado. Ademas, en cuanto

ondo eman gabe. Beraz, momentu honetan tokatzen zaigu egoera zein den aztertzea proiektua nola bideratzen dugun erabakitzea. Asmoa da, horren ostean proiektuarekin aurre egitea, berme guztiekin eta eman beharreko pauso guztiekin. Baina momentu honetan, pazientzia eta denbora behar da, eman beharreko pauso guztiak eman ahal izateko eta kudeaketa bideragarri eta jasangarria martxan jarri ahal izateko, hori baita bermatuko duena benetako kultur zerbitzu eta espazio egoki bat edukitzea, arrakastatsua eta jasangarria denborara.

al tema del personal, no fue prevista la necesidad de recursos humanos, y si estamos hablando de un proyecto que ese va a gestionar directamente por el Ayuntamiento, esta clara la necesidad de personal. Con todo esto se ve que, el proyecto se ha puesto en marcha, pero alguno de los pasos mas importante no se han dado correctamente. Por ello, en este momento toca analizar cual es la situacion para poder decidir como viabilizamos el proyecto. Una vez realizado esto, la intencion es seguir adelante con el proyecto, con todas las garant as. Pero en este momento, es necesario tener tiempo y paciencia, para poder dar todos los pasos necesarios, y para poder llevar a cabo una gestion del proyecto factible y sostenible, porque eso es lo que nos va a garantizar tener un espacio adecuado, exitoso y sostenible en el tiempo.

Juan Antonio Bueno Moreno jaunak galdetzen du ea zenbat denborara aurreikusten den prest egotea.

Don Juan Antonio Bueno Moreno pregunta por el tiempo en el que se preve que este listo todo.

Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia andereak dio zaila dela orain epeak esatea. Izan ere, adibidez, orain hartu beharreko erabakietako bat da lizentziaren asuntoa, eta oso ezberdina da, epeei dagokienez, kafe antzokiko lizentzia bada edo jarduera anitzeko lizentzia bada, azken hauek lortzeko prozesua eta epeak luzeagoak baitira. Beraz, lehenengo eta behin, eskatuko dugun lizentzia zein den erabaki beharko da, eta hori kultur mahaiarekin eta alderdi politikoekin adostea da intentzioa, hori ere berme bat izango baita proiektua arrakastatsua izateko. Beraz, iraupenaren inguruan, garrantzitsuena gauzak ondo egitea da, eta ez azkar. Mireia Elkoroiribe

Dona Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia dice que es dif cil decir plazos ahora mismo. Ya que, por ejemplo, una de las decisiones a tomar en este momento es el tema de la licencia, y es muy diferente, en cuanto a plazos, el procedimiento para conseguir una licencia de “cafe-teatro”, o una licencia de actividades diversas, pues el procedimiento para conseguir esta ultima es mucho mas complejo y extenso. Por lo tanto, en primer lugar, hay que decidir que licencia solicitar, y la intencion es la de tomar esta decision llegando a un acuerdo con la mesa cultural y los grupos pol ticos, porque el

Zenikaonandia andereak dio, bere ustez, eragina eduki zuela proiektu hau martxan jarri izana legealdi bukaeran. Orain aldiz, lasaitasunez hartu dezakete proiektua, berme guztiekin aurrera egin dezan.

Nagore Lozano Zarandona andereak galdetzen du ea zer esan nahi duen jarduera anitzeko lizentziak.

Asier Bikandi Elorriaga jaunak dio, orain daukagun lizentzia kafe-antzokiarena dela, eta horrek esan nahi du ostalaritzako establezimendu bat dela, eta tabernak baldintzatuko du dena. Beraz, eszenatokian zerbait egiten baduzu, taberna martxan egon beharko da derrigorrez. Hau horrela egin zen espazioa ahalik eta arinen zabaldu ahal izateko. Baina beste aukera bat daukagu, hain zuzen ere, jarduera anitzeko establezimendu gisa zabaltzea. Horrek dakar taberna osagarria izatea, eta beraz, espazioa ez da baldintzatuta egongo taberna zabaltzera. Orduan, aldaketa horren beharra dago, izan ere, proiektu honen helburua kultura da, eta ez taberna. Baina horrez gain, beste arazo bat daukagu, eta da espazioa bera oraindik ez dagoela legeztatuta. “Joko eta ikuskizunak” errekerimendu batzuk egin dizkigu, horietatik garrantzitsuena klimatizazioaren ingurukoa da, eta behin eta berriz esaten ari dira oraindik ez dugula baiezko informe positiboa. Horretarako irtenbideak bilatu ditugu, baina denbora behar dugu. Prozedura administratiboek denbora behar dute.

hecho de llegar a un acuerdo conjuntamente sera tambien una garant a para el exito del proyecto. Por lo tanto, en cuanto a la pregunta realizada sobre los plazos, lo importante ahora es hacer las cosas bien, y no hacerlas rapido.

Dona Nagore Lozano Zarandona pregunta por el significado de la licencia de actividades diversas.

Don Asier Bikandi Elorriaga dice que, la licencia que tenemos ahora es la de “cafe-teatro”, y eso quiere decir que es un establecimiento de hosteler a, y por ello, la hosteler a condicionara toda la actividad. Por lo tanto, si haces algo en el escenario, la barra del bar tendra que estar en funcionamiento obligatoriamente. Esto se hizo as para poder abrir el espacio cuanto antes. Pero existe otra opcion, que es la de abrir el establecimiento como un espacio para actividades diversas. Eso conllevara que el bar sea algo accesorio, y as , el funcionamiento del espacio no estara condicionado al funcionamiento de bar. Entonces, existe la necesidad de realizar ese cambio en el tipo de licencia, porque la finalidad de este proyecto es la cultura, y no un bar. Pero ademas, nos encontramos con otro problema, y es que el espacio todav a no esta legalizado. Desde “Juegos y Espectaculos” nos estan haciendo requerimientos, y el mas importante de ellos es el que ese refiere a la climatizacion, pues nos estan diciendo constantemente que todav a no contamos con un informe positivo. Para esto hemos buscado soluciones, pero necesitamos tiempo. Los procedimiento administrativos llevan sus tiempos.

Martin Loizate Sarrionandia jaunak dio, orduan ulertzen duela, gobernu berri honek hartzen dituela aurreko bi prozesu partehartzaileen ondorioak eta horiekin bat egiten duela, hau da, helburu berdina dela.

Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia andereak dio baietz, gobernu honek hartzen duela orain arte egindako guztia, eta mahai gainean dutela orain arte emandako pausoak aztertzea, eta horrekin saiatuko dira hurrengo pausoak zehaztean. Argi dute Plateruena kulturarako gunea izan behar dela. Baina orain arte emandako pauso batzuk ez dira egokiak proiektu honen bideragarritasuna eta jasangarritasuna bermatzeko, beraz, hausnarketa bat egin behar da horiek nola bermatuko diren erabakitzeko. Hausnarketa hori egin nahi da kultur mahaiarekin, udal teknikariekin eta baita alderdi politikoekin elkarlanean, adostasun zabalena egoteko, horrek bermatzen baitu proiektu gatazkatsua ez izatea.

Asier Bikandi Elorriaga jaunak dio garrantzitsuena orain garrantzitsuena espazioa normalizatzea eta legeztatzea dela, ikuspuntu juridiko-tekniko batetik.

Martin Loizate Sarrionandia jaunak dio gauza bat direla kontu tekniko-juridikoak, eta beste alde batetik dagoela espazio horrekin egin nahi duguna eta zein den zentzu horretan dagoen proiektua.

Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia andereak dio, alde betetik, epe laburrera klimatizazioa konpontzea beharrezkoa dela behin betiko lizentzia bat edukitzeko. Baina epe laburrean jarraituko dugu orain arteko

Don Martin Loizate Sarrionandia dice que, entonces entiende que este nuevo gobierno apoya y comparte las conclusiones de los dos procesos participativos anteriores. Es decir, que la finalidad es la misma.

Dona Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia dice que s , que este gobierno toma todo aquello que ese ha realizado hasta ahora, y que analizara todo ello para despues concretar los proximos pasos a realizar. Tienen claro que Plateruena tiene que ser un espacio para la cultura. Pero algunos de los pasos dados hasta ahora no han sido los adecuados para garantizar la viabilidad y la sostenibilidad de este proyecto, y por ello, ahora hay que hacer una reflexion para decidir como dar esas garant as. Se pretende hacer esa reflexion colectivamente con la mesa cultural, con los tecnicos del ayuntamiento y con los demas grupos pol ticos, para garantizar que no sea un proyecto conflictivo.

Don Asier Bikandi Elorriaga dice que ahora lo importante es normalizar y legalizar el espacio desde un punto de vista jur dico-tecnico.

Don Martin Loizate Sarrionanadia dice que una cosa son las cuestiones jur dico-tecnicas, y por otra parte esta el uso que se le pretende dar a ese espacio y el proyecto que hay en ese sentido.

Dona Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia dice que por una parte, es necesario arreglar la climatizacion a corto plazo para poder conseguir una licencia definitiva. Pero a corto plazo,

jarduerarekin, hau da, ez dugu etengo. Plateruena irekita egongo da orain arte egon den bezala. Baina epe luzera begira, ez da hori nahi duguna, hau da, ez dugu nahi jarduera nagusia taberna izatea, baina orain dagoen egoera hori da. Beraz, momentuz hori konpondu beharko da. Gainera proiektu hau martxan jarri zenean diru sarrera asko aurreikusi ziren, baina hau ez da horrela izan. Gastu asko egon dira, horietako asko ez zeuden gainera aurrekontuetan, eta diru sarrerarik ez da egon. Orduan, azken batean, ez gaude zalantzan jartzen egindako bi prozesu horietatik irtendako ondorioak, izan ere orokorrean bat gato ondorio horiekin. Baina ez gatoz bat ondorio horietatik irtendakoa martxan jartzeko egindakoarekin.

Jon Sergio Atxotegi jaunak dio epe laburrean jarraituko dela planteatutako ekintzekin, eta bitartean erabakiko da zein eredu jarraituko dugun proiektua denboran mantendu ahal izateko.

Asier Bikandik Elorriaga jaunak dio, orain egin behar dena dela, orain egingo ditugun ekitaldi edo jarduerak intentsitate baxukoak edo funtsezkoak izatea, jendeak ikusi dezan espazio horrekin kontatzen dugula, baina oso ondo neurtuz egiten duguna, arazorik ez edukitzeko. Hau da, arazoak ekidin behar dira, eta bitartean guztia legeztatzen joan, Plateruena gune oso erakargarria baita.

Eta aztertzeko gai gehiago ez dagoela ikusirik, Presidenteak amaiera ematen dio

seguiremos con la actividad que se ha llevado a cabo hasta ahora, es decir, no la vamos a paralizar. Plateruena seguira abierto de la misma forma que ha estado hasta ahora. Pero a largo plazo, no es eso lo que queremos. No queremos que la hosteler a sea su actividad principal, aunque es asea la situacion que tenemos ahora mismo. Ademas cuando se puso en marcha este proyecto se preve an muchos ingresos dinerarios, pero esto no ha sido as . Y ha habido muchos gastos, muchos de los cuales no estaban previstos en los presupuestos, y en cambio no ha habido ingresos. Entonces, a fin de cuentas, no estamos poniendo en duda las conclusiones derivadas de los dos proyectos, porque en general estamos de acuerdo con esas conclusiones. Pero no estamos de acuerdo con los pasos realizados para poner en marcha dichas conclusiones.

